

25. ALDIZKARIA - 2008ko otsailaren 25a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

ANTSOAIN

Aldaketa, Trafikoaren Udal Ordenantzaren 1, 2, 9, 10 eta 32. artikuluetan. Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2008ko azaroaren 28an egin osoko bilkuran, hasiera batean onestea erabaki zuen Trafikoaren Udal Ordenantzaren 1, 2, 9, 10 eta 32. artikuluen aldaketa, 2008ko 3. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, urtarrilaren 7an, argitaratu zena.

Aldatu den ordenantza 1999ko apirilaren 19ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zen, eta 1999ko 71. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu, ekainaren 7an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza horretako aldaketa behin betiko onetsi da, eta osorik argitaratzeko agindu, behar diren ondorioak izan ditzan.

Antsoainen, 2008ko otsailaren 8an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

TRAFIKOAREN UDAL ORDENANTZA

Arau orokorrak

Abiadura

1.1. artikulua. Antsoaingo hiriguneko bideetan 30 kilometro orduko da, gehienez ere, baimendutako abiadura. Kasu partikularretan, udal agintariak muga hori igo edo jaisten ahal dute, arrazoi justifikatuak daudenean.

2. Hiriko oinezkoen bideetan, galtzada erregelamenduzko neurrietara iristen ez denean, abiadura ez da 20 kilometro orduko baino handiagoa izanen.

Portaerako arau orokorrak

2. artikulua. Ibilgailuek debekatua dute asotsa egitea, seinale akustikoak desegokiro erabiliz edo tupustean azeleratuz, baita ihes-hodi trukatuak, ozen-ozen jarritako musika ekipoei edo bestelako ezohiko inguruabarrek eragin dezaketena ere.

Ibilgailuen soinu-alarmak arrazoirik gabe pizteagatik zehapena ezarriko da.

3. artikulua. Debekaturik dago suteak, zikinkeria, zirkulaziorako arriskua edo, oro har, kaltea eragin dezaketen gauzak edo likidoak bidera botatzea.

4. artikulua. Oinezkoek debekaturik dute baimenduta ez dauden tokietatik galtzada gurutzatzea. Toki baimenduetatik egin beharko dute, ahal den azkarren, gelditu gabe edo beste erabiltzaileei traba egin gabe, eta zirkulazioa oztopatu gabe.

5. artikulua. Galtzada gaizki baldin badago, obrak, eguraldia edo beste zerbait direla eta, gidariak kasu eman beharko dute, istripurik eta oinezkoendako eragozpenik gerta ez dadin.

6. artikulua. Ilunabarretik argi-hastera bitarte ibilgailuek hurbilerako argiak piztuta eraman beharko dituzte, udal mugapeko galtzada guztietan. Motozikletek egun osoan eramanen dituzte argiak piztuta. Halaber, hurbilerako argiak, eguraldiak hala eskatzen duenean, eraman beharko dira piztuta.

7. artikulua. Debekaturik dago gidatu bitartean telefonoak edo komunikatzeko antzeko bitartekoak erabiltzea, hauek "eskuak libre" izeneko behar bezala homologatutako gailua dutenetakoak ez badira, behintzat.

Bizikletak eta ziklomotorrak

8. artikulua. Ziklomotorren, bizikleten, gurpil-oholen eta gidarien energiaz mugitutako gainerako ibilgailuen kasuan, zirkulazioaren arau orokorrak bete beharko dituzte gidariek.

9. artikulua. Bizikletak oinezkoen alderdietan edo espaloi eta pasealekuetan aparkatzen ahalko dira, baina Udalak ezarritako guneez erreserbatu eta behar bezala seinalatuetan soil-soilik.

10. artikulua. Udalak behar bezala seinalizatuta ezarritako eremuetan bakarrik aparkatzen ahal dute ziklomotorrek.

11. artikulua. Ziklomotorrak erdi-baterian aparkatuko dira galtzadan, metro eta erdiko zabalera okupatuz, gehienez ere.

12. artikulua. Motozikleta edo ziklomotor bat bi ibilgailuren artean aparkatuz gero, ez da haietan sartzea galaraziko, ezta zirkulaziora itzulzeko maniobra ere.

13. artikulua. Debekaturik dago bizikletak, patinak eta gurpil-oholak espaloietan, parkeetako eta lorategietako kaleetan ibiltzea, horretarako erreserbatutako alderik ez bada. Dena dela, Udalak zenbait parketan bizikletaz ibiltzeko baimena ematen ahal du.

14. artikulua. Bizikletak galtzadan barna joanen dira, espaloitik ahal den hurbilen. Lerro bateko baino gehiagoko bideetan, albokoetan barna ibiliko dira. Lerro bateko baino gehiagoko bidegurutzeetara hurbiltzean, zein aldetara egin gogo den bira, harengatik hurbilen den lerroaren eskuinaldetik joanen dira.

15. artikulua. Debekaturik dago bizikletak gauez ibiltzea, aitzineko argia eta gibelego islatzailea, gutxienez, ez badaramatzate.

Argi keinukaririk ez duten bizikleten eta ziklomotorren gidariek garaiz seinalatu beharko dituzte egin beharreko norabide aldaketak eta biraketak, besoak erabiliz, erregelamenduak adierazten duen bezala.

16. artikulua. Ziklomotorren gidariak eta erabiltzaileak beharturik daude kaskoa erabiltzera, behar bezala homologatua, ongi jantzia eta lotua.

Zamalanak

17. artikulua. Salgaien garraioan aritzen diren ibilgailuek egiten dituzte zamalanak haietarako erreserbatutako guneen barrenean eta erregelamenduzko seinale etzan edo zutikakoen bidez adierazitako orduetan; betiere, ibilgailuak 2 metro zabal edo 5,5 metro luze izanen dira, gehienez ere.

18. artikulua. Inolaz ere ez daiteke oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eragotz edo oztopa, ezta atari, saltoki edo baimendutako pasabideen sarbideak ere. Horretarako, zamalanetan erabiliko diren merkataritzako gaiak, materialak eta gauzak, lurrian utzi gabe, zuzenean eramanen dira ibilgailutik eraikinerara edo alderantziz.

19. artikulua. Lan horiek egiteko behar adina langile egonen da, eta arretaz ariko dira, azkar, arriskurik gabe eta asots gutxi aterata.

20. artikulua. Ibilgailuak espaloiarekin batean lerrokatu beharko dira, ertzaren kontra, aitzinaldea zirkulazio orokorraren norabidean, salbu eta bateriako aparkalekuetan, kasu horretan ibilgailuak ezin izanen baitira horretarako seinalatutako eremutik kanpora atera.

21. artikulua. Zamalanetarako erreserbatuetan ezin izanen da aparkatu lan horiek egiteko behar den denbora baino luzeago, eta inoiz ez 30 minutu baino gehiago.

22. artikulua. Udalak aparkatzeko aldi baterako erreserbak eman ahal izanen ditu, lan berariazkoak egiteko (aldaerak, fuelaren hornidura, obrak etab.), alde zuzenetik eskatu eta dagokion tasa ordainduta.

Merkataritzako gai arriskutsuak eta garraioetako ibilgailu handiak

23. artikulua. Merkataritzako Gai Arriskutsuen Errepide bidezko Garraioaren Erregelamendu Nazionalaren (1754/1976 Dekretuaren bidez onetsia) 1-a, 1-b, 1-c eta 2 motetan sartutako merkataritzako gai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek, Erregelamendu horren 1 edo 2-A arrisku etiketak eraman behar dituztenek,

debekatua dute Udal honetako hiriguneen barrenean ibiltzea, bertatik igarotzen diren ingurabideetan izan ezik.

24. artikulua. Ibilgailu horiek aipatu eremua zeharkatzeko, Alkatetzaren baimena beharko dute. Hartan zehaztuko dira garraio horren mugak egun, ordu eta ibilbideei dagokienez.

25. artikulua. Guztiz debekatua dago 23. artikuluan aipatu ibilgailuek Antsoaingo udal mugape osoan aparkatzea.

26. artikulua. Ezaugarri bereziengatik, neurriengatik edo zamaren kokaeragatik, Zirkulazio Kodearen 222. artikuluan ezarritako baimena behar duten ibilgailuek eskaera egin beharko diote Antsoaingo Udalari, Udaltzaingoak udalerrian barrena gidatu, zaindu eta lagun egiteko zerbitzua eman diezaien. Dagokion tasa, Antsoaingo Udalaren ordenantza fiskalean jaso, sorraziko da.

Oinezkoen alderdiak

27. artikulua. Ibilgailuak zirkulatzeko edo aparkatzeko Antsoaingo Udalak erabat edo partzialki debekatu dituen aldeak dira oinezkoen alderdiak.

28. artikulua. Alderdi horiek zutikako seinaleen bidez zedarrituko dira, baita ibilgailuak toki horietara sartzea galarazi edo mugatuko duten beste elementu batzuk ezarrita ere.

29. artikulua. Oinezkoen alderdietan ibilgailuak zirkulatu eta aparkatzeko debekua:

- a) Zedarritu eta seinalatutako alderdiaren barreneko bide guztiak hartzen ahal ditu.
- b) Ibilgailuak zirkulatu eta aparkatzeko debekua ordutegi batera mugatzen ahal du.
- c) Finkoa izan daiteke edo soilik astegun batzuetan aplikatu.

30. artikulua. Nolanahi ere, murrizketa hauek ez dute eraginik izanen, tokiaren zein ibilgailua erabiltzen duenaren ezaugarriak kontuan hartuta, ibilgailuek Udalaren baimena badute. Bizikletekin ere ez dute eraginik, libre baitira oinezkoen alderdian ibiltzeko, hauen urrats arruntaren abiaduran dabiltzan bitartean.

Oinezkoen etorria berebizikoa denean, udaltzainek beharrezko neurri murriztaileak hartuko dituzte.

31. artikulua. Oinezkoen alderdietan oinezkoak lehentasuna izanen du ibilgailuen aurretik, salbu eta ibilgailua larrialdietan ibili eta, erregelamenduari jarraikiz, hala erakusten denean.

32. artikulua. Antsoaingo oinezkoen alderdi guztietan 20 kilometro orduko abiaduran ibiliko dira, gehienez ere, larrialdiko ibilgailuak edo mantentze-lanetakoak, behar bezala seinalizatuta.

Autobusak, kamioiak, atoiak eta karabanak aparkatzea

33. artikulua. Debeku da udal mugapeko bide guztietan 5.000 kg-tik gorako GPB duten ibilgailuak aparkatzea.

Antsoaingo udal mugapeko hirigintzako garapenak eta trafikoko baldintzek aukera ematen badute, Udalak, zerbitzu teknikoek hala eskatuta, aipatu ibilgailuen tokia erreserbatu ahal du behar bezala seinalatuko diren egun eta orduetarako, baldin eta ibilgailu horiek zirkulazioaren gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gainekoa Antsoaingo udalerrian helbideratuta badituzte.

Interesdunak eskatuta emanen dira baimenak. Hartara, Udalak eskatzen dituen baldintza guztiak bete beharko ditu, baimena jaso aurretik eta ondotik.

34. artikulua. 21 bidaiari baino gehiagorentzako tokia duten autobusek debeku dute udal mugapeko bide guztietan aparkatzea.

Antsoaingo udal mugapeko hirigintzako garapenak eta trafikoko baldintzek aukera ematen badute, Udalak, zerbitzu teknikoek hala eskatuta, aipatu ibilgailuen tokia erreserbatu ahal du behar bezala seinalatuko diren egun eta orduetarako, baldin eta ibilgailu horiek zirkulazioaren gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gainekoa Antsoaingo udalerrian helbideratuta badituzte.

Interesdunak eskatuta emanen dira baimenak. Hartara, Udalak eskatzen dituen baldintza guztiak bete beharko ditu, baimena jaso aurretik eta ondotik.

35. artikulua. Debeku horiek ez dira beteko behar bezala justifikaturiko salbuespen kasuetan; betiere, alde zuzenagatik agintari eskudunaren baimena eskuratu baldin bada.

36. artikulua. Karabanak eta atoiak aparkatzeko beharrezkoa izanen da udal organo eskudunaren baimen berariazkoa eskuratu eta lurzoruaren aprobetxamendu bereziaren prezio publikoa ordaintzea.

37. artikulua. Erabat debekaturik dago karabana, atoi eta etxebizitza-ibilgailuetan bizitzea udal mugapearen barrenean, salbu eta horretarako egokitutako tokietan. Horiek osasungarritasuna eta higiena bermatzeko adina bitarteko izan beharko dute.

Trafikoaren kontrol eta antolamendurako neurriak

38. artikulua. Udalak egokituz jotzen dituen neurriak hartu ahal izanen ditu trafikoa antolatzeko, zenbait tokitan zirkulatzeko baldintzak aldatuz, murriztuz edo debekatuz, betikoz nahiz aldi baterako, aparkalekuak, zamalanak eta pertsona zein salgaien garraioa berrantolatuz eta arautuz.

39. artikulua. Udaltzaingoak aldi baterako aldatu ahal izanen du zirkulazioaren antolamendua, baita sarrerak debekatu edo murriztu ere, zirkulazioa seguruagoa eta errazagoa izan dadin.

40. artikulua. Udaltzaingoak trafikoari dagokionez egiten dituen adierazpenek, oinezkoei zein gidariei, lehentasuna izanen dute lehenagoko beste edozein seinale edo araudiren aldean. Adierazpen horiek argiak eta gidariarentzat edo oinezkoentzat ulerterrazak izan beharko dute.

41. artikulua. Udalak aldi baterako debekatu ahal izanen du aparkatzea jarduera baimenduek okupatu beharreko eremuetan eta konpondu, seinaleztatu, mantendu edo garbitu behar diren tokietan. Halako kasuetan eremu horiek mugatuko dira, debekua 24 ordu lehenagotik seinalatu, neurriari noiz emanen zaion hasiera adierazten duten seinaleen bidez.

Epe horretan kentzen ez diren ibilgailuak Udalaren Garabi Zerbitzuak eramanen ditu, inguruko toki batera edo udal altxatokira, baina jarduketa horrek ez du ekarriko ez tasa ordaindu beharrik ez trafiko salaketarik. Kasu horietan ibilgailuak non dauden jakinaraziko zaie titularrei.

42. artikulua. Eremu publikoan edozein gauza jartzeko, Udalaren baimena beharko da. Horrelakorik ez duen oro berehalakoan kenduko da, interesdunaren kargura, halaber, baimena izanik ere, bideetako segurtasuna edo osasungarritasuna ziurtatzeko neurriak hartu ez badira.

43. artikulua. Erabat debekaturik dago zirkulazio seinaleak jartzea, aurretik Udalaren baimena izan gabe.

Inolaz ere ez da baimenduko publizitatea zirkulazio seinaleetan edo haien ondoan jartzea.

44. artikulua. Udalak halako bideak lehentasunekoak edo zirkulazio dentsitate handikoak direla deklaratu ahal izanen du, bigarren ilaran gelditzea debekatu eta bertan egindako arau-hausteengatik zehapenei isuna ezartzeko.

Sarbide murriztuko eremuak

45. artikulua. Antsoaingo Udalak erabakitzen duen eremuetan ibilgailuei sartzeari murriztu ahaliko zaie, baita bertan eman dezaketen denbora ere.

46. artikulua. Eremu horiek behar bezala seinalizatuko dira; orobat, sarbidea galarazi, murriztu edo kontrolatzen duten baliabide teknikoak hartzen ahal dira.

47. artikulua. Mugatutako eremuetara baimenik gabe sartzeari nahiz bertan denbora soberaz gelditzea, biak izanen dira zehatzeko arrazoi.

Ezarritako lekuetara sartzeko arauak behin eta berriz ez betetzea gertatzen bada, Udalak txartela baliogabetzea erabaki dezake.

Garraio publikoaren geralekuak

48. artikulua. Antsoaingo Udalak zehaztuko du non kokatu beharko diren garraio publikoaren geralekuak eta bidaiarien eskatu ahalako garraioarenak.

Autobusak geratu beharko dira horretarako prestatutako tokian, zirkulazio lerroak libre uzten dituztela.

49. artikulua. Geralekuetan bidaiariak hartu eta uzteko behar den denbora baizik ezin da egon, autobus linearen hasiera eta amaiera gisa seinalaturiko lekuetan izan ezik.

50. artikulua. Taxi zerbitzurako garraio publikoko geralekuetan, soilik bidaiarien zain eta prest dauden bitartean egoten ahal dira ibilgailu horiek.

51. artikulua. Ibilgailuen kopurua ez da inolaz ere izanen geralekuak har ditzakeen ibilgailuena baino handiagoa.

Ibilgailu abandonatuak

52. artikulua. Ibilgailu abandonatuak kalean luzaroan eta mugagabeko epean egon ez daitezten, bide publikoa erabiltzeko ohiko aukerak murriztu eta narriadura estetikoa eta zikinkeria ekartzen baitituzte, honako artikulua haueetan zehaztutako jarduketak eginen dira haien gainean, kanpoko itxurak, toki berean emandako denborak eta beste inguruabarrek abandonaturik dagoela pentsarazten badute:

53. artikulua. Antsoaingo Udalak ibilgailuaren erregistroko titularrari jakinaraziko dio hura ustez abandonatua dagoela, eta bost egun naturaleko epea izanen du egokitze jotzen dituen alegazioak eta, betiere, ibilgailuaren aseguruaren kopia, aurkezteko. Ibilgailua, arriskuren bat sortzen badu, bertatik kenduko da eta, gero, titularrari jakinaraziko zaio.

Aurreko lerroaldean aipatutako epean titularrak alegaziorik aurkezten ez badu, ezta indarra duen aseguruak ekarri ere, ibilgailua udal altxatokira eramanen da. Ibilgailua behin altxatokian utzita, handik eraman ahal izateko beharrezkoa izanen da indarra duen asegurua aurkeztu eta dagokion tasa ordaintzea.

Ibilgailu abandonatua altxatokira eraman ondotik, titularrak berreskuratzeko eskaerarik egin gabe hogeita hamar egun natural iraganik, desegitera bidaliko da eta hala jakinaraziko zaio Probintziako Trafiko Burutzari, dagokion erregistroan ezabatzeko.

Gelditu eta aparkatzea

54. artikulua. Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen eranskineko 68. zenbakiari jarraikiz, ibilgailua, pertsonak hartu edo uzteko edo zamalanak egiteko, 2 minutu baino gutxiagoz mugitu gabe edukitzea da gelditzea.

Aparkatzea, berriz, aurreko lerroaldeko egoeran, hau da, geldituta, ez dagoen ibilgailua mugitu gabe edukitzea da.

55. artikulua. Ibilgailua geldituta dagoenean, arau orokorra da gidaria ezin dela ibilgailutik aldentu, eta, salbuespen gisa, hala egiten badu, motorra itzali beharko du eta hurbil egon, eskatzen zaion unean edo egoerak behartuta, kendu ahal izateko.

56. artikulua. Erabat debekaturik dago gelditzea:

- a) Babeslekuetan, babesguneetan, erdibitzailuetan, oinezkoen alderdietan eta trafikoa bideratzen duten gainerako elementuetan.
- b) Eraikinetako sarrera-irteeretan, dagokien pasabide seinalea dutenetan.
- c) Seinaleak ongi ikustea eragozten den tokietan.
- d) Izkina, bidegurutze edo bidebanatzeetatik 5 metro baino gutxiagora.
- e) Zubietan, tuneletan eta gainetiko pasabideen azpian, kontrako seinalerik ez badago.
- f) Espaloietan, pasealekuetan, oinezkoen alderdietan eta lorategietan.
- g) Zirkulaziorako edo zenbait erabiltzaileren zerbitzurako erreserbatutako bide lerro edo zatietan.
- h) Elbarrientzako edo beste erabilera batzuetarako espaloi-oketsetan.
- i) Zirkulazioaren lerro bat oztopatzen den tokietan.
- j) Seinaleak debekatzen duen tokietan.
- k) Seinale bidez, biratzea baimenduta egonda, biratzeko aukera eragozten denean.
- l) Hiriko garraio publikorako baizik ez diren geraleku eta aparkalekuetan.
- m) Zirkulazioa oztopatzen den beste toki guztietan, oso denbora txikirako bada ere.

57. artikulua. Ibilgailuak ilaran aparkatu ahal izanen dira, hau da, zintarriarekin batean lerrokatuak; baterian, hau da, zintarriarekiko perpendikularrean; edo erdi-baterian, zeharka.

57.1. Zoladura seinalez hornituta duten aparkalekuetan ibilgailuak markatutako esparruaren barrenean kokatuko dira.

57.2. Ibilgailuak zintarritik ahal den hurbilen aparkatuko dira, galtzadaren alde hori garbitu ahal izateko adina tartea utziz.

57.3. Bide publikoetan ezin izanen dira aparkatu ibilgailu motordunetik bereizitako atoiak.

57.4. Beste erabiltzaileek gainerako tokia ahalik eta hobekien erabiltzeko moduan aparkatuko da.

Baterian aparkatuz gero, alde bietan aparkatutako ibilgailuetara arazorik gabe sartzeko moduan egingen da.

57.5. Zamilan, zerbitzu ofizial eta abarretarako aldi baterako erreserbatutako alderdietan libre da ordutegitik kanpo aparkatzea, salbu eta espresuki debekaturik badago.

58. artikulua. Erabat debekaturik dago aparkatzea:

a) Seinaleek debekatzen duten tokietan.

b) Gelditzea debekatuta dagoen tokietan.

c) Bigarren ilaran, edozein kasutan.

d) Zamilanetarako seinalatutako tokietan, denbora mugen barrenean.

e) Pasaguneetan, osoki nahiz partez.

f) Zaborrontzien ondoan, zabor bilketa galaraziz edo oztopatuz.

g) Aparkaleku publiko batean, ongi aparkatutako ibilgailu bat ateratzea eragotziz edo oztopatuz.

h) Espaloirik gabeko kale urbanizatueta.

i) Ezinduek beste inork ez erabiltzeko seinalatutako tokietan.

j) Galtzadaren erdian.

k) Zerbitzu publikoaren eta Antsoaingo Udalaren ibilgailuentzat erreserbatutako eremuetan.

l) Udal agintariak ordutegi mugatuan aparkatzeko gaitutako lekuetan, horretarako baimena ematen duen erakusgarria jarri gabe edo, erakusgarria jarrita ere, udal ordenantzak gehienez uzten duen denbora baino luzeago.

m) Behar bezala seinalatutako toki erreserbatueta.

Ibilgailuak eremu publikotik kentzea

59. artikulua. Ibilgailua kendu behar duenak segituan egiten ez badu, Udaltzaingoak edo horretarako izendatuko den agintariak bide publikotik kendu eta udal altxatokira eraman ahalko dute honako kasu hauetan:

a) Arriskutsua denean, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari nahiz zerbitzu publikoen funtzionamenduari traba larria egiten dienean, ondare publikoa narriatzen duenean eta, orobat, ibilgailu hori bide publikoan abandonatua dagoela uste denean.

b) Istripuren bat izan eta abiatu ezinik gelditzen denean.

c) Ibilgailua bera hondatu delako, ibilgetzen bada.

d) 67.1 artikulua hiruugarren lerroakadak xedatzen duenari jarraituz, ibilgailua geldiarazi ondotik, arau-hausleak isunaren zenbatekoa ordaindu nahi ez duenean edo hura ordaintzeko bermerik eman nahi ez duenean.

e) Udal agintaritzak ordutegi mugatuan aparkatzeko gaitzen dituen tokietan ibilgailua aparkaturik gelditzen denean, horretarako baimena ematen dion bereizgarria ezarri gabe, edo udal ordenantzaren arabera ordaindutako

denbora halako bi egiten duenean.

f) Ibilgailua lerroetan edo zirkulaziorako edo zenbait erabiltzaileen zerbitzurako soilik erreserbatutako bide-zatietan aparkatuta dagoenean.

g) Zaborrontziak husteko lanak oztopatzen dituean.

60. artikulua. Kasu bakar batzuk baizik aipatzearen, ibilgailua ordenantza honen aurreko artikuluen a) atalean zehaztutako inguruabarretan dagoela eta, beraz, kentzea justifikatua dagoela ulertuko da:

60.1. Gelditzea debekaturik dagoen toki batean aparkatuta dagoenean.

60.2. Ibilgailua bigarren ilaran eta gidaririk gabe aparkatuta dagoenean.

60.3. Kantoi baten erpinetik edo izkina baten mutur edo eskuadratik zati bat ateratzen denean, beste gidariei maniobra arriskutsuak egitera behartuz.

60.4. Oinezkoen pasabide seinalatu batean edo elbarrientzako espaloi-okets batean aparkatuta dagoenean.

60.5. Erabiltzeko baimendutako orduen barrenean pasabide bat osorik edo zati batean okupatzen duenean.

60.6. Seinalatutako orduen barrenean pasabide bat osorik edo zati batean okupatzen duenean.

60.7. Garraio publikorako geraleku seinalizatu eta mugatu batean aparkatuta dagoenean.

60.8. Larrialdiko edo segurtasuneko zerbitzuentzat erreserbatutako tokian aparkatuta dagoenean.

60.9. Elbarrientzako toki erreserbatu batean aparkatuta dagoenean.

60.10. Espaloi, ibiltoki, babesgune, pasealeku edo zoladuran zerrendak pintatuta dauden tokietan aparkatuta dagoenean, espresuki baimenduta dagoenean izan ezik.

60.11. Bidean doazen gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea eragozten dienean.

60.12. Biraketa eragotzi edo hura egiteko maniobrak egitera behartzen duenean.

60.13. Bide batetik datozen gidariei beste bidea ikustea trabatzen dienean.

60.14. Eraikin bateko sarrera osorik nahiz zati bat oztopatzen duenean.

60.15. Galtzadaren erdian aparkatuta dagoenean.

60.16. Oinezkoentzako kale batean baimendutako orduetatik kanpo aparkatuta dagoenean, espresuki baimendutako aparkalekuetan izan ezik.

60.17. Betiere, aurreko kasuetan bezala, arriskua edo zirkulazioari zein zerbitzu publikoen funtzionamenduari eragozpen handia sortzen baldin badie.

61. artikulua. Arau-hausterik egon gabe ere, bide publikotik ibilgailuak kendu ahal izanen dituzte kasu hauetan:

61.1. Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko bat egiteko erreserbatuta dagoen toki batean aparkatuta baldin badaude.

61.2. Bide publikoa garbitu, konpondu, kontserbatu edo hartan seinaleak jarri ahal izateko ibilgailuak kendu beharra dagoenean.

61.3. Larrialdietan.

Inguruabar hauen abisua lehenbailehen egin beharko da, eta baimendutako tokirik hurbilenera eramanez dira ibilgailuak, edo udal altxatokira, eta titularrei non dauden jakinaraziko zaie.

Eramateak ez du inolako ordainketarik sorraraziko, ibilgailua noranahi eramanda ere.

62. artikulua. Baldin eta, ibilgailua kentzeko lanak hasita, gidaria agertzen bada, bertan behera utziko dira lan horiek; betiere, Antsoingo Udalaren ordenantza fiskaletan kontzeptu horrengatik agertzen den tasa ordaindu ondoren.

Zehapen prozedura

63. artikulua. Ordenantza honetan araututako gaietan eraman beharreko prozedura Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunaren arloko Zehapen Prozeduraren Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan ezarritakoa izanen da, eta aipatutakoan aurreikusirik ez daudenetan Zehapen Ahalmenaz Baliatzeko Prozeduraren Erregelamendua, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, aplikatuko da.

64. artikulua. Ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako arau-hausteak zehatzeko, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Lege artikuludunean ezarritakoari jarraituko zaio, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen.

65. artikulua. Antsoingo Udalaren Idazkaritzak irekiko ditu ordenantza honetan araututakoaren kontrako arau-hausteengatiko espedienteak, edo haren eginkizunak betetzen dituztenek. Idazkaria kanpoan izateagatik edo legezko arrazoi bat tartean dela, errefusatua bada edo abstenitzen bada, kontu-hartzaileak ordeztuko du. Tramitazioa amaituta, Antsoingo Udaleko alkate udalburuak emanen du bidezko ebazpena.

66. artikulua. Zehapena Udalaren eskumenekoa ez den arau-hausteen kasuan, Antsoingo Udaltzaingoak salaketa egingen du, eta ondoren Antsoingo Udalak berak administrazio eskudunari igorriko dio.

67. artikulua. Diru zehapenarekin batera, gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko zehapena ere jaso dezaketen arau-hausteengatik irekitako zehapen espedienteak, betiere Udalak zehatu beharreko egitate baten ondorio badira, egiteko hori duten udal organoek tramitatu eta ebatziko dituzte, eta ondotik agintari eskudunari igorriko zaizkio, soilik gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko balizko zehapena ezar dezan.

68. artikulua. Jakinarazpenetarako, ibilgailuaren gidariaren eta titularraren helbidea gidariaren eta arau-hausleen erregistroan eta ibilgailuenean, hurrenez hurren, ageri dena izanen da. Interesdunak beste helbide bat ematen badu, aldatu egingen da, horretarako arrazoia, instruktorearen iritziz, prozedurari trabak jartzeko ahalegin maltzurra ez bada.

69. artikulua. Zehapen espedienteen ebazpenaren aurka errekurtsio hauetako bat aurkezten ahalko da:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusian arlo horretaz arduratzen den Salari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, alde zuzenetik organo egileari errekurtsioa aurkezteko asmoaren berri emanik; edo bestela:

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik aitzina.

Lehenbizikoa.-Indarrik gabe gelditu dira ordenantza honen aurka jotzen duten maila bereko edo txikiagoko udal arauak edo hartan araututako gaiei buruzko xedapenak dituztenak.

Iragarkiaren kodea: L0802042